



**IKASLEAREN GIDA**  
**BIZIKIDETZARAKO HEZKUNTZA**

**IKASTURTEA:  
2013/2014**

# TITULAZIOA: GRADUA PSIKOLOGIAN

ZENTRO: PSIKOLOGIA FAKULTATEA

IKASTURTEA: 2013-2014

## IKASLEAREN GIDA

### 1. IRAKASGAIAREN OINARRIZKO EZAUGARRIAK

#### IZENA: Bizikidetzarako hezkuntza

KODEA: 25084

IKASTURTEA: 2013/2014

IRAKASGAI MOTA = (D = adarreko oinarrizkoa; S = beste adar batzuetako oinarrizkoa; Y = gradu amaierako proiektua; O = nahitaezkoa edo P = hautazkoa)

ECTS Kredituak: 4,5

kurtsoa: 3./4.

LAUHILEKOA: 1.

Bete beharrekoak:

Gomendioak: "Prebentzioa eta esku-hartzea hezkuntza-testuinguruetan" eta "Gatazken analisisa eta ebazpena" ikasgaiak eginak izatea.

### 2. IRAKASLE-TALDEAREN DATUAK

IZENA: Luixa Reizabal

ZENTRO/SAILA: Oinarrizko psikologia prozesuak eta haien garapena

ALORRA: Garapenaren eta hezkuntzaren psikologia

BULEGOA: 3D8

e-posta:

luixa.reizabal@ehu.es

TLF:943 015 720

URL WEB:

IZENA: Aitziber Pascual

ZENTRO/SAILA: Oinarrizko psikologia prozesuak eta haien garapena

ALORRA: Oinarrizko Psikologia

BULEGOA: 3D6

e-posta:

aitziber.pascual@ehu.es

TLF: 943-015658

URL WEB:

### 3. IRAKASGAIAREN BERARIAZKO ETA ZEHARKAKO GAITASUNAK

Gaitasuna	Irakasgaiaren berariazko gaitasunak
1	Ezagutzea Bizikidetzarako Hezkuntzaren oinarri teorikoak.
2	Ezagutzea Bakerako Hezkuntzak eta Gatazken Ebazpenak duten rola bizikidetzan esku-hartzeko tresna gisa.
3	Ezagutzea Bakerako Hezkuntzaren eta Gatazken Ebazpenaren helburuak, lerro orokorrak, agenteak eta eskolako testuinguruan dituzten oinarri psikopedagogikoak.
4	Eskola eremuan bizikidetzarekin zerikusia duten beharrak atzemateko gaitasuna eskuratzea.
5	Bizikidetzaren ebaluatzeko tresnak erabiltzeko gai izatea.
6	Eskola eremuan bizikidetzaren sustatzea helburu duten esku hartzeko estrategiak diseinatzeko, aplikatzeko eta ebaluatzeko gaitasuna eskuratzea.
7	BHri buruzko dokumentazio-iturriak erabiltzeko gai izatea, eta informazioa eskuratzeko behar diren estrategiak menderatzen direla erakustea.
8	Lanbide anitzeko taldeetan lan egiteko gai izatea.
9	Idatzizko zein ahozko txosten teknikoak prestatzeko gai izatea.
10	Psikologoak eskolaren eremuan dituen funtzioak eta ardura etikoak ezagutzea.

## **4. PROGRAMA**

### **4.1. PROGRAMA TEORIKO ZABALA**

Programa bi zatitan banatuta dago. Lehenengoa bakerako hezkuntzari dagokio eta Luixa Reizabal irakasleak emango du. Bigarrenak, berriz, Gatazken Ebazpenarekin du zerikusia eta beste irakasle batek emango du (aurreko urtean Aitziber Pascual-ek eman zuen).

#### **1. ZATIA**

##### **I ATALA: BIZIKIDETZA**

1. Sarrera: bizikidetzarako hezkuntza.
  - 1.1. Bizikidetza eta haren pedagogiaren eduki edo/eta balioak.
  - 1.2. Bizikidetza oztopatzen duten aldagaiak.
2. Bizikidetza oztopatzen duten egungo hezkuntza-sistemaren alderdiak.
  - 2.1. Balioak eta edukiak.
  - 2.2. Hezteko modua.
  - 2.3. Ebaluazio-sistema.
  - 2.4. Ikaslearen eta irakaslearen ikusmoldea.
  - 2.5. Eskola-egitura.

##### **II ATALA: BAKERAKO HEZKUNTZA BIZIKIDETZA SUSTATZEKO TRESNA GISA**

3. Bakerako Hezkuntzaren oinarri teorikoak.
  - 3.1. Kontzeptuzko oinarriak: bake positiboa eta gatazkaren ikusmolde positiboa.
  - 3.2. BHren helburuak, balioak eta edukiak, hezkuntza-lerroak eta BH prozesuan parte har dezaketen agenteak.

#### **2. ZATIA**

##### **III ATALA: GATAZKEN KONPONKETAN HEZIKETA PROGRAMAK**

1. Gatazken konponketan eta Bizikidetzan oinarritutako Eredu Orokorra Eskolan.
2. Gatazken konponketan oinarritutako gaitasunak irakasteko Programa Kurrikularra.
3. Berdinen arteko (berdinak edo ikaskideak) Bitartekaritza Programa.
4. Programa diziplinarra.
5. Erasoaren aurrean prebentzioa eta esku-hartzea.

## 4.2. PRAKTIKA EGITASMOA (\*)

### LEHEN ZATIA

Ikasgaiaren lehen zatia *Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza* delako irakaskuntza metodologia aktiboaren bitartez landuko da batez ere. Hona hemen inplementazio kronograma, 2012/2013 ikasturteko ordutegiaren arabera:

(J= Jarduera; F= jarduera amaitzeko falta den minutu kopurua).

ASTEAK	CM	PA	TA	PO	S	EZ- PRESEN.
1. ASTEA Irailak 9-13	J1 (60')	J2 (60' F20')				120'
2. ASTEA Irailak 16-20	J2 (20')+ J3(75')+ J4 (25')	J4 (60' F95')				150'
3. ASTEA Irailak 23-27	J4 (95')+ J5(25' F170')		J5 (120' F50)			150'
4. ASTEA Irailak 30- Urriak 4	J5 (50')+ J6(10' F140')			J6 (120' F20')		150'
5. ASTEA Urriak 7-11	J620'+ J7 (100' F60)		J7(60')			30'

Azken saioetan BHn erabili ohi diren jarduerak egingo dira.

(\*) Komenigarria litzateke jarduera bakoitzarekin zein gaitasun garatzen den zehaztea, bai eta gaitasunaren zenbakia ere.

## **5.-IRAKASGAIAREN PLANGINTZAKO KRONOGRAMA**

(jarraibideak: Psicoplaneko taula kopiatu eta atal honetan itsatsi)

## 6. EBALUAZIO-SISTEMA (TEORIA ETA PRAKTIKA)

Eskoletara joan eta bertan garatuko diren jardueretan parte hartzen duten ikasleekin *Paper-zorro* bidezko ebaluaketa jarraitua erabiliko da.

Besteek, berriz, azterketa egin beharko dute, ikasgaiari landutako alderdi teoriko eta praktikoak jasoko dituenak. Bost puntu balioko ditu eta 10 galdera laburrez egongo da osatuta. Gainditu ahal izateko, gutxienez, 2,5 atera beharko da.

## 7. DOCUMENTAZIOA/BIBLIOGRAFIA

### OINARRIZKOA:

Alzate, R. (1997). Resolución de conflictos en la escuela. *Innovación educativa*, 7, 107-122.

Alzate, R. (2000). Conflicto y Escuela. *Letras de Deusto*, 30, 15-30.

Alzate, R. eta Community Boards (2000). *Resolución de conflicto: programa para Bachillerato y Secundaria*. Bilbo: Mensajero.

Jares, X. (2005): *Educación para la paz. Su teoría y su práctica*. Popular: Madril.

### OSAGARRIA:

### BALIABIDEAK INTERNETen:



## **8. TUTORE-ORDUTEGIAK**

Tutoretza ordutegia GAUR plataforman dago ikusgai.